

Nafarroako Gobernuak eta EH Bilduk enpresa handiei zergak jaistea adostu dute

*Akordio fiskalaren
balorazioa eta ELAren
proposamenak*

2025eko azaroa



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Aurkibidea

1. Nafarroako politika fiskalaren azterketa.....	3
2. PSN, Geroa Bai, Contigo-Zurekin eta EH Bilduren arteko akordio fiskala	7
3. ELAren proposamenak langileentzako zerga sistema bidezkoago baterantz aurrera egiteko.....	10

Fiskalitatearen Mahaian, Nafarroako Gobernuak (PSN, Geroa Bai eta Contigo-Zurekin) eta EH Bilduk osatua, 2026ko aurrekontuarekin batera bozkatuko den Foru Legearen Zerga Neurrien proiektua adostu dute.

Dokumentu honetan, ELAk Lege proposamen horren balorazioa egiten du. Baita ere, Nafarroako errealitate fiskalaren azterketa egiten da eta eta sindikatuaren proposamenak jasotzen dira diru bilketa handitu eta aberastasuna gehiago banatuko duen zerga erreforma egiteko.

1. Nafarroako politika fiskalaren azterketa

1.1. Nafarroako presio fiskala 1.600 milioi euro baxuagoa da Europako batez bestekoa baino

Presio fiskalak administrazio publikoek (zergak, Gizarte Segurantzako kotizazioak eta udaletako diru bilketak barne) jasotzen dituzten diru sarrera guztien eta barne produktu gordinaren (BPG) arteko harremana neurtzen du. Hau da, administrazio publikoek ekonomiatik zenbat biltzen duten adierazten du. Presio fiskala Europar Batasuneko herrialdeekin alderatzeak aukera ematen du inguruko egoeran gure posizio erlatiboa ezagutzeko, eta horrela fiskalitatearen arlo bakoitzean dugun tarte zehazteko.

Europako Batzordearen arabera, 2023ko presio fiskalaren batez bestekoa Europan %39,5koa izan da. Nafarroan, berriz, presio fiskala %33,4koa izan zen 2023an. Batez besteko europarrarekin alderatuta, 6,1 puntuko aldea izan zen. Alde hori 2024an presio fiskala Europako batez bestekoaren berdina izan balitz, 1.657 milioi euro gehiago bilduko zirela esan nahi du.

Hau neurri handi batean azal daiteke sozietateen gaineko zergaren presio fiskala Europako txikiena delako. Sozietateen gaineko zergaren bidez bildutakoaren pisua BPGaren %3,2koa izan zen batez beste EB-27an 2023an; Nafarroan, berriz, %1,96koa. Aplikatutako zerga tasa baxua eta sozietateen gaineko zergan dagoen iruzur fiskala direla eta, zerga honen presio fiskala EBko azken postuan kokatu zen. 1,24 puntuko alde horrek 2024an 531,9 milioi euro gehiago biltzea ekarriko luke; hau da, bildutakoaren (500,2 milioi euro) bikoitza baino gehiago.

1.2. Langile klaseak jarraitzen du Nafarroako zerga-bilketa bere gain hartzen

2024an Nafarroan itundutako zergen bidez egindako guztizko bilketa 5.433 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtearekin alderatuta %6,4ko hazkundera suposatuz.

Zerga zuzenek, hau da, zerga ordaintzen duen subjektuaren ahalmen ekonomikoa kontuan hartzen dutenek, %10,7 egin zuten gora iaz; zeharkako zergek, berriz, gutxiago hazi ziren, %2,1.

Zerga zuzenen hazkundera, batez ere, lan errenten bidez bildutakoari zor zaio. Lan errentek 1.932,8 milioi euro ekarri dituzte (aurreko urtean baino %10,1 gehiago), eta hori zerga zuzenen bidez bildutakoaren %64,7 da. Testuinguru honetan, nabarmentzekoa da Sozietateen gaineko Zergak aurreko ekitaldia baino gutxiago bildu duela (%0,9 gutxiago). Enpresek ogasun publikoak sostengatzen dituztela dioen iruditeria kolektibotik urrun, errealitatearen eta datu enpirikoen azterketak bestelako egoera bat erakusten du: soldatapeko pertsonak lau aldiz gehiago ordaintzen dute beren soldatetatik enpresek beren mozkinetatik baino.

Horrela, Nafarroako zerga bilketa lan errenten ekarpenei eta kontsumoa zergapetzen duten zergei esker sostentzen da. Nafarroako guztizko bilketaren %77,5 (4.208,8 milioi euro) langileek beren nominatik ordaintzen dutenaren eta BEZaren zein zeharkako zerga berezien bidez bildutakoaren kontura egiten da (ahalmen ekonomikoa edozein izanda berdin ordaintzen diren zergak, hau da, errenta altuek eta pobrezia atalasearen azpitik daudenek berdin ordaintzen dituztenak).

- **Soldata errentek 2007an ordaintzen zutenaren bikoitza baino gehiago ordaintzen dute gaur egun**

Lan errenten bidez PFEZn bildutakoa 1.932,8 milioi euro izan zen 2024an; hau da, zerga zuzenen bilketaren %65. Bestela esanda, zerga zuzenen bidez sartzen den diruaren ia 10 eurotik 7 soldatapeko errentek ekartzen dituzte. Eboluzioak erakusten du lan-errentek 2023an baino %10,1 gehiago ekarri dutela. Are gehiago, lan-errenten bilketa urtez urte hazten da, BPGa edo inflazioa baino gehiago. Enpresetatik bildutakoa 2007an baino %18,6 txikiagoa den bitartean, 2007tik lan errenten bidezko bilketa %104,5 handitu da.

Nafarroako PFEZaren bilketa aztertzen badugu, ikus daiteke 10 aitordenetik 9 urtean 60.000 eurotik beherako tartetean daudela, eta soilik %0,15 dela tarte altuenetako bietan (urtero 180.000 eurotik gora aitortzen dutenak).

- **BEZa ere batez ere lan errentek ordaintzen dute**

Zeharako zerga nagusia BEZa da, eta, esan bezala, zergadunaren ahalmen ekonomikoa kontuan hartzen ez duena. Kontsumoaren gaineko zerga atzerakoi bat da, ondasun eta zerbitzuen kontsumoa zergapetzen duena eta, hortaz, ondasun eta zerbitzu horiek kontsumitzen dituenak ordaintzen duena.

Zerga honek 1.689,8 milioi euro ekarri zizkion Nafarroako ogasunari 2024an, 2023an baino 4,5 milioi gutxiago. Zerga bereziek, berriz, 586,2 milioi euro bildu zituzten (%9,2 gehiago).

Azpimarratzekoa da zeharkako zergek ere batez ere langile klaseari eta lan errentei eragiten direla, enpresa errentak edo errenta profesionalak askoz gutxiago direlako (Nafarroako PFEZ aitorpenen %86,4 lan-errentak dira).

1.3. Enpresek eta errenta altuek gero eta gutxiago ordaintzen dute zergatan

- **Sozietateen gaineko zergak %18,6 gutxiago biltzen du 2007an baino**

Pandemia osteko urteetan enpresen marjinak nabarmen handitu dira eta, horrekin batera, enpresen mozkinak ere, zenbait kasutan inoizko mailarik altuenetara iritsiz. Gogoratu behar da irabazi horiek jendearen kontura lortu direla, familiak estutuz hipoteketan, argindarrean eta gasean gehiago ordaintzera behartuta. Horrenbestez, logikoa litzateke enpresek ogasun publikoei ekarpen handiagoa egitea. Hala ere, ikus daitekeenez, sozietateen gaineko zergaren bidezko bilketa oraindik ez da iritsi 2008ko krisiaren aurreko mailara.

Nafarroan, Sozietateen gaineko Zergaren bilketa 500,1 milioi eurokoa izan zen 2024an, aurreko urtean baino %0,9 gutxiago. Hala eta guztiz ere, kopuru hori 2007an bildutakoaren %18,6 txikiagoa da; urte hartan 593,3 milioi bildu ziren. Hau da, 2024an Sozietateen gaineko Zergaren bidez 93,2 milioi euro gutxiago bildu ziren 2007an baino, nahiz eta ordutik BPGa %39,7 handitu den.

2007an Sozietateen gaineko Zergak Nafarroako BPGaren %3,2 ekartzen zuen. 2024an ere portzentaje bera aplikatuko balitz, Nafarroak 869,2 milioi euro bilduko lituzke zerga honen bidez, hau da, 369,1 milioi euro gehiago.

- **Kapitalaren errenten pribilegioek bidegabekeria fiskala areagotzen dute**

PFEZren eskala orokorrean soilik lan errentek tributitzen dute. Eskala orokorreko tarifak %13tik %52ra bitartekoak dira. Aldiz, aurrezki edo kapitalaren errentek –hala nola kapital higigarriaren etekinek (akzioak, inbertsio funtsak edo pentsio funtsak) eta kapital higiezinaren etekinek– askoz ere eskala txikiagoan tributitzen dute, gehienez %20tik %28ra.

Lanaren bidez lortutako errenta batek metatutako kapitalaren bidez lortutako beste batek baino askoz gehiago ordaintzea guztiz bidegabekeria da, eta argi erakusten du Nafarroako fiskalitateak zein interes babesten dituen.

- **Ondarearen gaineko Zerga biztanleriaren %1ek bakarrik ordaintzen du**

Ondarearen gaineko Zerga pertsona aberatsenei soilik eragiten dien zerga da. Ondarerik handiena duten pertsona fisikoek ordaintzen dute (enpresek eta sozietateek ez dute zerga hau ordaintzen). Zerga honek zergadunaren ondasunen balioa zergapetzen du, haren zorra kendu ondoren.

Nafarroan, zerga honen aitorpena aurkeztu beharra dute milioi bat eurotik gorako ondarea dutenek. Balio hori kalkulatzeko, kontuan hartu behar da ohiko etxebizitzatik 250.000 euro salbuesita daudela. Horrez gain, zergadun bakoitzeko 550.000 euroko gutxieneko salbuespena dago, eta errenta eta ondare zerga baterako zerga oinarriaren %60ko gehieneko muga dago.

Gogoratu behar da Nafarroako Gobernutik UPN kanpo geratu zenetik egin den zerga erreforma nagusia aurreko legegintzaldian egin zela: 2020tik aurrera jarduera ekonomiko bati lotutako ondasunak salbuesi ziren Ondarearen gaineko Zergan.

Muga horiek guztiek eraginda, Nafarroan biztanleriaren %1ek bakarrik ordaintzen du zerga hau (7.292 pertsona 2023an, azken datuen arabera), eta 44 pertsonak bakarrik tributatzeko dute tarte altuenean. Ondarearen gaineko Zergaren bidez bildutako guztizkoa 42,7 milioi euro izan zen 2024an, Nafarroako bilketa osoaren %0,79.

1.4. Enpresen eta enpresa errenten iruzur fiskalarekiko permisibitatea

Nafarroako sistema fiskalaren beste ezaugarri bat da existitzen den iruzur fiskal handia. Hau da, enpresen presio fiskala europako eta estatuko txikiena izateaz gain, enpresek eta enpresa errentek egiten duten iruzur fiskala ere kontuan hartu behar da.

Iruzur fiskalaren adierazleetako bat enpresa errenten PFEZ aitorpena da. 2023an (azken datu eskuragarria), lan errentek deklaraturako errenta enpresarialek deklaraturakoaren bikoitza izan zen. Lanaren errendimendu garbia 25.325 eurokoa izan zen 2023ko ekitaldian, eta hori 12.834 euro gehiago da jarduera enpresarialeki aitortutakoa baino, 12.491 eurokoa izan baitzen.

Beste adierazle bat da Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena. 2023an (azken datu eskuragarria), zerga honen aitorpena aurkeztu behar zuten 20.063 sozietate zeuden. Aitorpenen %40,4ak irabazirik gabekoak izan ziren (8.104), eta %20,8k galerak deklaratu zituzten (4.168). Hau da, enpresen eta gainerako sozietateen %61,2k adierazi zuten ez zutela ezer irabazi edo galerak izan zituztela (eta, beraz, ez zuten zerga hau ordaindu). Bistakoa da datu hauek ez dutela errealitatea islatzen.

2. PSN, Geroa Bai, Contigo-Zurekin eta EH Bilduren arteko akordio fiskala

2.1. Adostutako neurri fiskal nagusiak

- Sozietateen gaineko zergan

- Akordioak tasa % 28tik % 25era jaistera planteatzen du 4 baldintza betetzen dituzten enpresentzat:
 - Lan kontratua duten pertsonen kopurua ez dela aurreko 3 urteetako batez bestekoa baino txikiagoa.
 - Arrazoi ekonomikoengatik ERTerik aplikatu ez izana azken urtean.
 - Azken urtean enpresak laneko prebentzioaren arloko zigor larri edo oso larririk jaso ez izana.
 - Legea betetzea berdintasun plana egiteko betebeharrari dagokionez.
- Gutxieneko tributazio efektiboa ezartzen da: % 13, % 11 eta % 10, enpresaren negozio bolumenaren arabera. Hau da, gutxieneko tributazio orokorra % 13koa izango da, enpresa txikitzat hartzen direnak (1 eta 20 milioi arteko negozio bolumena dutenak) % 11koa, eta mikroenpresatzat hartzen direnak (milioi bat eurotik beherako negozio bolumena dutenak) % 10koa.
- PFEZ
 1. Errenta txikienei dagokionez, alde batetik, lan etekinengatik aitortzeko obligazioaren gutxienekoa 17.000 eurora igo da. Hau da, urtean 17.000 eurotik beherako errentak dituzten pertsonak ez dute errenta aitortpena egiteko beharrik izango.

Bestalde, gutxieneko pertsonalengatiko kenkaria 32.000 eurora igo da. Hau da, 32.000 eurotik beherako errentei zerga karga murriztu zaie. Gobernuaren arabera, neurri honek 114 milioiko eragin negatiboa izango du diru bilketan 2026an.
 2. Zuzeneko zenbatespenaren bidez zergak ordaintzeko muga 200.000 eurotik 250.000 eurora igoko da garraiolariarentzat.
 3. Alarguntzako eta erretiroko gutxieneko pentsioen osagarria urtean 15.400 euro gordinera arte igoko da. Neurri hori jasota dago 2026ko aurrekontu akordioan, eta 15.400 eurotik beherako pentsioa dutenek kopuru horretara arte osatu ahal izango dute PFEZren kenkari baten bidez.

2.2. Akordioaren balorazioa

- **Sozietateen gaineko Zerga jaitsiko zaie Estatu osoko zerga zamarik txikiena duten enpresei**

Zergaren tasa jaisteko baldintzak erraz lor daitezke enpresentzat, eta, beraz, enpresa handi gehienek gutxiago ordainduko dute Sozietateen gaineko Zergan. Neurri hori guztiz salagarria da, eta are gehiago kontuan hartzen badugu enpresek Nafarroan Estatuko gainerako herrialdeetan baino gutxiago ordaintzen

dutela, Europako batez bestekoa baino askoz gutxiago eta 2007an biltzen zena baino gutxiago ere bai.

Gainera, adostutako baldintzak betetzen ez dituzten enpresei zerga gehiago ordaintzera behartu beharrean, baldintza horiek betetzen dituztenei zergak murrizten zaizkie, eta horrek bilketa murriztea dakar, eta horrek zerbitzu publikoak ahuldu ditzake.

- **Zerga bilketa gutxitzea dakarren akordioa**

Zergek zerbitzu publikoak eta gizarte prestazioak finantzatzeko balio dute, eta bilketa nahikorik gabe, ezin dira kalitatezko zerbitzu publikoak bermatu.

Iragarritako neurri nagusiek eragin negatiboa dute diru bilketan, eta ez da besterik proposatzen bilketa handitzeko edo, gutxienez, iragarritako neurrietatik eratorritako galerak konpentsatzeko.

Neurri horiek bilketan izango duten kostua publiko egin ez bada ere, deigarria da Nafarroako Gobernuak errenta txikienei eragiten dieten neurriek izango duten kostua bakarrik publiko egin izana.

- **Errenta txikienei zerga zama arintzearekin batera, errenta handiei eta kapitalari diru bilketa handitu behar zaie.**

ELAk uste du errenta txikienei egiten zaien zerga beherapena, gutxienekoengatikoen kenkaria handituz eta aitorpena egiteko betebeharra igoz, osatu egin beharko litzatekeela errenta handien gaineko eta kapitalaren errenten gaineko zerga karga handiagoarekin, akordio honetan gertatzen denaren justu kontrakoa.

- **Aitorpena aurkezteko beharraren gutxienekoa igotzeak kalte egin diezaieke pentsio txikienetarako kenkariaren onuradun liratekeen pertsonari.**

ELAren ustez, pentsio txikiak osatzea beharrezkoa eta premiazkoa da, eta modu eraginkorrean egin behar da. Gogoratu behar da gaur egun 60.000 pertsona baino gehiago daudela 1.100 eurotik beherako pentsioarekin Nafarroan.

Zerga kenkariaren bidez 15.400 eurorainoko alarguntza eta erretiro pentsioen osagarriari dagokionez, ELAk uste du oso irismen mugatua izan dezakeela, eta hala erakusten du neurri horretarako aurrekontu zuzkidurak. Horregatik, ELAren ustez, beharrezkoa da publiko egitea 2025eko aurrekontu akordioan ezarritako neurri horrek zenbat pertsonari egiten dien mesede.

Bestalde, osagarri hori ez da prestazio baten bidez egiten, PFEZaren kenkari bat baizik. Beraz, PFEZaren aitorpena egiten ez dutenek ez dute horren onurarik izango. Kontuan hartu behar da Foru Lege proiektu berean PFEZ aitortzeko nahitaezko gutxienekoa 17.000 eurora igo dela, hau da, alarguntza eta erretiro pentsioetarako proposatutako osagarriaren ginetik. Horrek kanpoan utz ditzake osagarri hori jasotzeko eskubidea duten pentsiodunak.

Ildo horretan, ELAk uste du fokua ez dela aitortpena egiteko nahitaezko gutxienekoa igotzean jarri behar, horren ondorioz balitekelako alarguntasun edo erretiro pentsioa osatzeko kenkaria (edo beste edozein kenkari) jasotzeko eskubidea duten pertsonak kanpoan geratzea.

- **Ia eraginik izango ez duen gutxieneko tasa finkatzen da**

Sozietateen gaineko Zergaren tasa efektiboa, hau da, kenkariak eta hobariak aplikatu ondoren enpresek ordaintzen duten tasa erreala, % 18,9koa da enpresa handientzat, % 17koa enpresa txikientzat eta % 15,8koa mikroenpresentzat.

Gutxieneko tributazio efektiboa ezartzeko proposamenak (% 13, % 11 eta % 10, hurrenez hurren) ez du ia eragin errealik izango. Praktikan, gutxieneko zifra horiek egungo tasa efektiboen azpitik daude, eta, beraz, neurriak ez du balioko diru bilketa nabarmen handitzeko.

Izan ere, prentsaren arabera, erreforma horrek 11 milioi euro baino ez lituzke bilduko, eta kopuru hori oso txikia izango litzateke kontuan hartzen bada Sozietateen gaineko Zergak 500 milioi euro bildu zituela 2024an.

- **Ez dago inolako neurririk iruzur fiskalaren aurkako borroka hobetzeko**

Enpresen zerga zama txikiari iruzur fiskala gehitu behar zaio: 10 sozietatetik 6k galerak aitortzen dituzte edo diru sarrerarik ez dutela. Iruzurra argi eta garbi ikusten da PFEZn ere, non enpresa errentek laneko errentek baino gutxiago irabazten dutela aitortzen duten.

ELAk faltan botatzen du enpresei eta kapitalaren errentei egiten zaizkien ikuskapenak handitzeko neurriak hartzea. Neurri horiek eragin zuzena dute justizia fiskalean, eta, gainera, errentagarriak dira diru kutxa publikoentzat.

Ez dago, beraz, inolako arrazoirik Nafarroako Ogasunaren ahalmen fiskalizatzailea hobetu eta baliabideak handituko dituen neurririk ez hartzeko.

2.3. UPNren ezkerreko alderdiek uko egin diote kapitalaren eta enpresen pribilegioak zalantzan jartzeari

UPN Gobernutik atera eta hamar urtera, Nafarroako fiskalitateak bidegabea, eskasa eta zerga iruzurrarekiko permisiboa izaten jarraitzen du. Zoritxarrez, fiskalitate hau irauli beharrean, Nafarroako enpresek oraindik zerga gutxiago ordaintzea adostu dute Nafarroako Gobernuak eta EH Bilduk.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak berak akordioaren berri eman zuen prentsaurrekoan adierazi zuenez, neurrien helburua da "*askoz ere Lurralde erakargarriagoa erakustea enpresa-proiektu gehiago iristeko*". Ildo beretik, Merkataritza Ganberak positibotzat jo du Sozietateen gaineko Zergaren beherapena. Merkataritza Ganberak, Nafarroako erakunde neoliberalenetako batek, akordioa txalotu izanak akordio hau sinatu duten alderdi politikoak lotsarazi beharko lituzke.

Antzeko egoera gertatu zen 2023an PSNk, Geroa Baik, Zurekin eta EH Bilduk adostutako erreforma fiskalean, UPNren gustukoa izan baitzen.

Egia esan, Nafarroan erreforma fiskal sakona ez egiteko erabakiak ondorio sozialak izaten ari da. 2015etik 2024ra bitartean, pobrezia arriskuaren tasa % 13,9tik % 18,3ra igo da, hazkunde ekonomikoko hamar urte izan diren arren (aldi horretan bertan, BPG % 41,5 hazi da eta enplegua % 20,1). Pobrezia handitzea, oparaldi ekonomikoetan, hamarkada honetan Gobernuako kide izan diren edo kanpotik babestu duten alderdi guztien porrota da.

ELAk gaitzetsi egiten du UPNren ezker aldean dauden alderdi politiko guztiek zerga erreforma sakonik ez egitea adostu izana. ELAren iritziz, eskuina Gobernutik kanpo edukitzeko estrategia politikoa ezin da inoiz eskuineko politikak bere gain hartzearen kontura izan. Ez bada zalantzan jartzen eta ez bada alternatibarik planteatzen enpresen interesak eta errenta altuenak babesteko diseinatutako zerga politikaren aurrean, balizko politika alternatibo bati buruzko erreferentzia oro galtzen ari da. Fiskalitatean adostasun horren onuradun nagusiak enpresak eta errenta altuak eta kapital errentak dira, beren interesetarako onuragarri izango den fiskalitatea izaten jarraituko baitute.

3. ELAren proposamenak langileentzako zerga sistema bidezkoago baterantz aurrera egiteko

Testuinguru honetan, ELAk bere proposamenak egin ditu erreforma fiskal sakona egiteko, enpresen mozkinengatik, aberastasunagatik eta errenta handiengatik ordaindu beharreko zergak nabarmen handituko lituzkeena.

Instituzio ezberdinek ahalbidetu dute zerga sistema gero eta bidegabeagoa izatea. Horregatik, erakundeei aldaketa eskatu behar zaie. Nafarroako zerga sistema osoa Nafarroako erakundeen esku ez dagoenez, proposamenak eskumenaren arabera sailkatuta daude.

3.1. Zerga erreforma

ELAk honako neurri hauek proposatzen ditu, eta Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak erabateko eskumena dute hauek gauzatzeko.

- Sozietateen gaineko Zerga
 - Sozietateen gaineko zergaren tasaren eta tasa errearen murrizketaren aurrean, beharrezkoa da mozkinen gaineko % 25eko gutxieneko tasa efektiboa ezartzea, salbuespenik gabe.
 - Kenkari eta pizgarri fiskalak eta ingeniariak fiskala kentzea, tasa efektiboa tasa nominalarekin berdintzeko.
 - Gehiegizko mozkinengatik zerga ezartzea. Azken urteotan ikusi izan dugu enpresek testuinguru aprobatxatu dutela irabaziak izugarri handitzeko. Horregatik ikusten dugu beharrezkoa dela enpresa handien aparteko onura horiek zergapetzea krisi testuinguruak gertatzen direnean.

- Ondarearen gaineko Zerga
 - Ondarearen gaineko Zerga aberatsenek duten boterea murrizteko tresna bat da. Bidezkoa da gehien dutenei gehiago ordainaraztea. Horregatik beharrezkoa ikusten dugu:
 - Aberatsenen kasuan, zergaren tarifa % 4ra igotzea.
 - Zerga honen eta PFEZaren muga orokorra ezabatzea.
- PFEZ
 - Lehenik eta behin, ELAk proposatu du errenta handienei tasak handitzea eta, gutxienez, %66an kokatzea (1.000.000 eurotik gorako errenta dutenen kasuan, %80ra igotzea). Neurri honek tarte gehiago ezartzea ere ekarri beharko luke, progresibotasun handiagoa lortzeko.
 - Kapital errenten aldeko tratua ezabatzea (akzioen eta partaidetzen ondorioz irabazitakoak, alokairuak eta beste errenta batzuk). Ez du inolako zentzurik kapitaletik lortzen diren errentek lanekoek baino gutxiago ordaintzea. Ildo horretan, funtsezkoa da tarifaren dualtasuna ezabatzea, edo, bestela, tasa orokorra baino handiagoa ezartzea kapitaletik lortzen diren errentetarako.

3.2. Nazioartean

ELA inguruko errealitatearen jakitun da, eta, horregatik, beharrezkoa da gauzak Nafarroa mailan ez ezik, Europa eta mundu mailan ere aldatzea. Zentzu horretan, ELAk zergak Europar Batasun osoan harmonizatzea eskatzen du, dumping fiskala saihesteko, sozietateen gutxieneko zergarekin (ELGA) gertatu zen bezala. Ezinbestekoa da bide horretan jarraitzea eta enpresa guztiei % 25era igotzea.

Era berean, duela gutxi egindako azterlanen arabera, milimilioidunek biztanleen dezimal txikiagoek baino zerga tasa txikiagoa ordaintzen dute. Egoera honen aurrean, aberastasunari zerga bat ezarri behar zaio Europan. Gabriel Zucmanek dio milimilioidunek urtero beren aberastasunaren % 2 ordaintzen dutela.

Paradisu fiskalei dagokienez, Oxfamek diotenaren arabera, aberastasunaren benetako jabeak nortzuk diren jakin behar da, enpresen eta beste erakunde legal batzuen onuradun eraginkorren erregistro publikoak eginez. Era berean, "pantaila-enpresak" debekatu beharko lirатеke, eta offshore aktibo fisikoen benetako jabeak zeintzuk diren argitara emango duen aktiboen mundu mailako erregistro bat martxan jarri.

3.3. Iruzur fiskalaren aurkako borroka

ELAk Nafarroako Ogasunari preskripzio aldian soldataz besteko errenta guztiak ikuskatu ahal izateko baliabide nahikoak ematea eskatzen du. Horrek esan nahi du gehienez ere lau urtetik ikuskatuko direla enpresa guztiak, bai eta kapital errentak eta jarduera ekonomikoak ere.

3.4. Zerga politika osoa Nafarroako Parlamentuan erabakitzea

Eskumen guztiak Nafarroaren esku egon beharko lirateke. Gaur egun, zuzeneko zergen gaineko araugintza eskumena baino ez dago. Zeharkako zergak eta gizarte kotizazioak Madrilen erabakitzen jarraitzen dira. Gainera, zerga hauek ogasunen diru sarrera gehienak dira, eta horrek esan nahi du Nafarroari ez zaiola subiranotasun fiskalik ematen.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA